

Zestoako liburutegia lekuz aldatuko dute

I. ELORZA

Zestoako Udal Liburutegia lekuz aldatuko dute hil honetan. Alonderoko etxeko egoitza berrira pasako dute liburutegia eta, horregatik, uztailean zehar itxita egongo da. Hala ere, arduradunek jakinarazi dutenez, Interneteko zerbitzua mantendu egingo dute. Dena dela, goizez bakarrik egongo da zerbitzu hori martxan, 10:00etatik 13:00tara bitartean. Abuztuan, berriz, urtero bezala, liburutegiko langileen oporrak direla-eta, guztiz itxita egongo da liburutegia. Lekualdaketa egiteko, lehendik hartuta dauden liburuak itzultzea eskatu dute arduradunek. Horretaz gain, behar den materiala irailera arte eramaten utziko dutela jakinarazi dute.

Iazko aurrekontuekin

Zestoako Udal Gobernuak bi proiektu berrirentzako partidak proposatu zituen iazko aurrekontuen aldaketa onartzerakoan: Idiazpi goikaldeko saneamendu arazoa konpontzeko partida batetik, eta Udal Liburutegi berria prestatzeko diru partida, bestetik.

Liburutegi berrirako lokala bera amaituta zegoen ordurako, eta gainerako partiden soberakinekin liburutegia behin betikoz prestatzea erabaki zuten azaroan. Zazpi hilabete beranduago, proiektua hil honetan gauzatuko da.